

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

Euskara Arloa

Diru-laguntza lerroa: «Euskara sustatzea helburu duten ekintza sozialetarako diru-laguntza».

2019an diru-laguntzak emateko deialdi bateratua onartzen duen 546/2019, maiatzaren 3koa, Irungo Udaleko Alkatezaren ebazpenaren laburpena.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003, azaroaren 17ko Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, argitaratzen da deialdiaren laburpena. Honen testu osoa Diru-laguntzen Datu-Base Nazionalan (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>) eta Irungo Udalaren internet atarian (www.irun.org) kontsulta daiteke.

Xedea.

Irunen euskararen erabilera sustatzeko edo indartzeko garatutako egitasmoetarako diru-laguntzen kontzesioa norgehiagoka, betiere Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) helburu nagusiekin bat etortzen badira.

Onuradunak eta betekizunak.

Pertsona fisiko edo juridikoak, edota diru-laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran daudenak, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa baldin badute eta Irunen euskararen erabilera sustatzeko edo indartzeko ekitaldi edo jarduera zehatzak antolatzen baldin badituzte.

Zuzkidura ekonomikoa eta zenbatekoa.

Aurrekontu zuzkidura: 3.496 euro.

Aurrekontu aplikazioa: 1 1010.481.02.335.90.2019 –Best. Transfer Euskara Zuzend–.

Diru-laguntzaren zenbatekoa: gehienez, diruz lagungarria den % 70.

Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Eskariak aurkezteko epea 3 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

Eskaerak aurkeztuko dira Irungo Udalaren aurrean, HAZ Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren bitartez, Udal Egoitza Elektronikoa edo Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera beste edozein prozedura bitartez.

Irun, 2019ko maiatzaren 6a.—Idazkaritza eta Zerbitzu Juridikoaren teknikaria. (3007)

AYUNTAMIENTO DE IRUN

Área de Euskera

Línea de subvención: «Subvenciones para actividades sociales cuyo objetivo es la promoción del euskera».

Extracto de la Resolución n.º 546/2019, de 3 de mayo, de la Alcaldía del Ayuntamiento de Irun, por la que se aprueba la convocatoria unificada para concesión de subvenciones en el año 2019.

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>) y en el Portal de Internet del Ayuntamiento de Irun www.irun.org.

Objeto.

Subvenciones a proyectos desarrollados por entidades que promocionen el uso del euskera en Irun, en régimen de concurrencia competitiva, de acuerdo con los objetivos generales del Plan de Acción para la promoción del Euskera (PAPE).

Beneficiarios y requisitos.

Personas físicas y jurídicas que colaboren en la consecución del objetivo de esta convocatoria, o que se encuentren en la situación que legitima su concesión, que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar y que organicen eventos o actividades concretas en Irun para promocionar el uso del euskera.

Dotación económica y cuantía.

Dotación presupuestaria: 3.496 euros.

Aplicación presupuestaria: 1.1010.481.02.335.90.2019 –Otr. Transferencias Dcon Euskera–.

Cuantía de la subvención: hasta un máximo de 70 % del gasto subvencionable.

Plazo y forma de presentación de las solicitudes.

Las solicitudes podrán presentarse en un plazo de 3 meses, desde el día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

Las solicitudes se presentarán ante el Ayuntamiento de Irun a través del Servicio de Atención Ciudadana (SAC), Sede Electrónica Municipal o cualquier otro medio previsto en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común.

Irun, a 6 de mayo de 2019.—La técnica de Secretaría y Servicios Jurídicos. (3007)